

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

427

24/2025 EBAZPENA, urtarrilaren 20koa, Barakaldo-Sestaoko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari medikoarena, zeinaren bidez Juan Luis Fernández Elorduy jauna Mantentze-lanen eta Zerbitzu Orokorren Arloan Administrazioiko eta Kudeaketako Zerbitzuburu kargutik kentzen baita, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Barakaldo-Sestaoko Erakunde Sanitario Integratuan, berak hala eskatuta.

Abenduaren 1eko 333/2021 Ebazpenaren bidez, Juan Luis Fernández Elorduy jauna Mantentze-lanen eta Zerbitzu Orokorren Arloan Administrazioiko eta Kudeaketako Zerbitzuburu izendatu zen Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Barakaldo-Sestaoko Erakunde Sanitario Integratuan.

Ebazten duen organoa eskuduna da, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoaren Estatutu Sozialak ezartzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaren 15.2 artikulua bigarren paragrafoan xedatutakoaren arabera. Horren arabera, lanpostu hori hutsik badago, erakundeko Zuzendaritza Medikoak hartuko ditu bere gain zuzendari-gerentearen eginkizunak.

Ekainaren 26ko 8/1997 Legea, azaroaren 11ko 255/1997 Dekretua eta aplikatzekoak diren gainerako xedapenak ikusita, Zuzendaritza Gerentzia honek

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– Juan Luis Fernández Elorduy jauna Mantentze-lanen eta Zerbitzu Orokorren Arloan Administrazioiko eta Kudeaketako Zerbitzuburu lanpostu kargutik kentzea, berak hala eskatuta, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Barakaldo-Sestaoko Erakunde Sanitario Integratuan, eta eskerrak ematea egindako lanagatik.

Bigarrena.– Ebazpen honek 2025eko urtarrilaren 21ean izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Interesdunari eta Barakaldo-Sestaoko Erakunde Sanitario Integratuari ebazpen honen berri ematea.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsioa aurkez dakiok Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Barakaldo, 2025eko urtarrilaren 20a.

Barakaldo-Sestaoko ESiko zuzendari medikoa,
MARÍA LOURDES VIVANCO GÓMEZ.